

Euskal Herriak ezagutu zituen aukera eta prozesu politikoetan parte hartze aktiboa izan baitzuen: 1997.ko urrian Gernikan egindako adierazpena (“Estatutua hilda dago”), Lizarra-Garazi, ETaren suetena... Horietan guztietan, eta aurrerantzean, erakuntza nazionala elementu gako bihurtu zen.

Zazpigarren kapituluan, *Pulso reivindicativo y alternatividad (2000-2003)*, aurrekoan agertzen ziren elementu berak azaltzen dira. Alde batetik, ELAren eta LABen arteko tirabirak eta egilearen interpretazioak. Haien arteko lehiak, aldiz, paso eman zion berriro elkarlanari, eta 2003 urtean ELA-LAB-ESK hitzarmena gauzatu zen bi punturen inguruan: LHEE eta gizarte-mobilizaziorako dinamikak sortzea. Aurrekoetan bezala, batasun horrek bere isla izan zuen esparru politikoan Batasunaren ilegalizazioaren eta Egunkariaren itxiaren aurka. Beraz, etengabe ikusiko dugu harreman dialektiko hori, lehia eta lankidetzarako beharra, gaur egun arte. Bestaldetik, kapitulu honetan ere ELAren eredu sindikala aztertzen du egileak.

Ondorio gisa, azken orrialdeetan Letamendiak bi eredu sindikal bereizten ditu: aldarrikatzailea versus sistemaren osagarria dena. ELA sindikatu-aldarrikatzailea, kontrapotere-sindikatu, gizarte-mugimenduen eta interes-taldearen arteko sintesi gisa definitzen du. Eta sindikatuaren gatazka-koadro berri bat margotzen digu: Klase-gatazka, nazio-gatazka eta post-modernitatearen gatazka sektorialak (gerra eta patriarkalismoaren aurka, gatazka ekologikoak...). Globalizazioaren aurkako gizarte-mugimenduekin bat egin ez, horietan guztietan murgilduta aukezten digu Letamendiak kontrapoterea ardatz duen ELA sindikatuan. Liburu honekin abiapuntu ezin hobea dugu ELAren azken 25 urteko bilakaera ezagutzeko, zalantzarik ez. Hasieran esan bezala, ordea, hainbat neurgailu faltan izan dut, kalean zein lantokietan diskurtso horren praktika zein den jakin ahal izateko. Azken batean, Letamendia ados ez badago ere, subjektu iraultzaile bera dugu krisian azken hamarkada hauetan.

Patxi López Abasolo



MONTOYA, Estibalitz

Urdazubi eta Zugarramurdiko euskara

Nafarroako Gobernua. Hezkuntza Departamentua, Unibertsitaterako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia, 2004. - 351 or. ; 24 cm. - ISBN: 84-235-2529-5

Estibalitz Montoyaren liburu hau bere tesi-lanaren fruitu da, eta dialektologiaren ikerketan hutsune bat betetzera heldu da; hain zuzen ere muga eremuetan mintzo den hizkera aztertzeraz zuzenduta dagoena. Urdazubi eta Zugarramurdi, administrazioz nafar herriak dira, baina Ipar Euskal Herriko mugatik oso hurbil daude.

Mende luze bat pasatu da Bonapartek bere euskalkien sailkapena egin zuenetik (1869) eta Zugarramurdiko zein Urdazubiko euskara lapurteraren barruan sartu zuenetik. Euskararen egoera izugarri aldatu da, besteak beste, euskara batuaren etorre-

rarekin, eta, dudarik gabe, ikerketa berriak beharrezko egiten ari dira eta azken hamar urteotan, hain zuzen ere burutzen ari dira. Lan hau eredu kontrastatiboa eta ikuspegi geolinguistikoa erabili dituzten horietako bat da, Euskal Herri gehieneko ikuspegi dialektologikoa osatuz eta borobilduz.

Esan bezala, lan honek ikuspuntu kontrastatiboa jorratzen du, edozein lan dialektologikok izan beharrekoa, ez du ikuspegi atomista edo deskribatzaile soilean gelditu behar. Hori dela eta, ezaugarri nabarmenenak aztertzeaz gain, inguruko hizkerekin dituen berdintasun eta desberdintasunak aurkezten ditu.

Izan ere, Zugarramurdiko eta Urdazubiko hizkerak geolinguistikoki dituen loturak eta etenak ikusteko, ondoan eta inguruka dituen beste hizkera guztiak ezagutu behar ditu, alegia zein hurbiltasun eta urruntasun maila lotu edo bereizten duten neurtu eta azalerazi behar du. Eta lan honek eredu alderatzailea eta ikuspegi geolinguistikoa erabili ditu, ez sinkronikoki bakarrik, diakronikoki ere bai.

Liburua hamabi ataletan banatua dago. Honezaz gain, eranskin moduan badira beste hiru atal: kapitulu batean grabaketen transkripzioak biltzen dira, beste batean mapak, eta, azkenekoan bibliografia bi azpiataletan banatua.

Lehenengo atalean, eremuko herrien arteko harremanak eta hauen ondorio linguistikokoak aztertzeaz gain, datu geografiko, historiko eta etnografikoak biltzen dira. Ikuspuntu historiko honen arabera, orain arteko ikertzaileek Zugarramurdiko eta Urdazubiko hizkera nola sailkatu duten aztertzen du.

Bigarren atalean lanaren metodologia eta oinarri teorikoak aztertzen dira, datuen bilketa nola egin den, galderak zeintzuk izan diren etab. Aldagarri soziolinguistikoko ere kontuan hartu ditu: sexua, lanbidea eta adina, dialektologiak eskaintzen dituen lanabes eta oinarri teorikoak baliatuz. Izan ere, helburu nagusia aldaketa diatopikoa aztertzea izanagatik, ikuspuntu diastratikoari ere garrantzi zerbait ematea izan du helburutzat.

Alde honetan azpimarratu behar da, nolabait, aldagai soziologikoan gutxi sakondu den arren, adinak eragindako aldaera badagoela, eta nahiz eta asko sinplifikatzea den, Montoyak dio gazteen hizkera erdialdeko euskalkirantz egiten ari dela. Gainerako beste bi baldintzek, alegia, sexuak eta lanbideak ez dute horrelako eraginik hizkeraren aldagarritasunean.

Lan honetan, Estibalitz Montoyak alderdi sinkronikoa aztertzea zuen helburutzat, baina, hizkerak izan duen bilakaera ere ezagutu nahi izan du, eta horretarako, eskura izan dituen testu zahar guztiak miatu ditu, hauetatik ateratako datuekin ikuspegi osotuagoa borobilduz. Datu sinkronikoak eta diakronikoak uztartuz helburu argi bat bete nahi da, hizkerak norabidea aldatu duen ala ez jakitea, alegia lapurterarantz edo nafarrerarantz egiten ari den ikustea. Izan ere, dialektologia sinkronikoa eta historikoa bereizteak hainbat kasutan badu justifikaziorik, baina ezin pentsa daiteke elkarren arteko hartu-emanik gabeko bi eremu direnik.

Nolanahi dela ere, xede hau betetzean, oztopo larriak aurkitu ditu, eta handienetarikoa bat izan da Saran eta Ainhoan dagoen albiste urritasuna, nahiz beste toki batzuetan, Baztanen, esaterako, lan garrantzitsuak dauden. Ikertzaileak badaki testu idatziekin zuhur jokatu behar dela, nork idatzi, noiz idatzi, non, nola, zein helbururekin, nori zuzendua, hau guztia ez baita kontu hutsala. Horrela, hemendik ateratako lekukotasunek aukera ematen digute hainbat hizkuntz ezaugarri mailegaturik izan ote diren identifikatzeko. Honetarako lapurterako testu klasiko batzuetaz baliatu da.

Ondorengo ataletan (3-11) Zugarramurdi eta Urdazubiko hizkerak erakusten dituen ezaugarri linguistiko nabarmenenak aztertzen dira. Horrela, hirugarren atala bokalei eskaini die, hiatoak eta diptongoak atal desberdinetan aztertuz. Esan behar da lan honetan ez duela azterketa akustikorik baliatu, ez kontsonantismoan ezta bokalismoan ere, azterketa zabala egin nahi izan duelako, ez deskripzio zehatza. Nolanahi dela ere, azterketa akustikoa kasu batzuetan erabiltzea aukera egokia litza-teke hainbat ezberdintasun ikusteko, azentu mailakoak, kasu. Esaterako, azentuak balio funtzionalik, morfologikorik edo lexikorik ez duela baieztatu edo ukatzeko.

Seigarren atalean kontsonanteen azterketa osotua ekartzen du, inbentario fonologikoan xehetasunez sakonduz. Kontsonanteen sailkapena eta beraien azterketa ezaugarri garrantzitsuetan arreta jarri burutu da. Honako ataletan dago banatua: hasperena, dardarkari ubularea, igurzkari belare ahoskabea, txistukariak, asimilazio bustidura, rtz taldea...

Azentuaren atala zazpigarren kapituluaren biltzen da, bertan Zugarramurdiko eta Urdazubiko hizkeran azentua nola txertatzen den ikustea da helburua, horretarako, hitz bakunak, deklinabide atzizkiak, maileguak eta toponimoak aztertuz.

Zortzigarren atala, izenaren morfologiaren atala da. Deklinabideari dagokionez, kuadroetan bildurik agertzen zaizkigu aldaerak. Honez gain, izenordainak, erakusleak, zenbatzaileak, adberbioak, perifrasiak, konparaziozko morfemak eta posposizioak dira azterketa helburu. Atal bakoitzean alde diakronikoaren ekarpena testu idatzien bidez agerian egoten da, bai eta ikuspegi kontrastatiboa ere, hurbileko euskalkietan egindako ikerketak ezagutzen dituela garbi azaltzen du.

Bederatzigarren atala aditzaren morfologiari eskainita dago, eta bertan, aditz laguntzaileetan nahiz aditz izenetan aurki ditzakegun aldaera morfologiko azpimarragarrienak biltzen ditu, erabilera eta aditzen jokamoldea ahaztu gabe. Hitanoari ere tokia egin zaio, eta honek dakarren murriztapen sintaktikoak aztergai izan dira, izan ere hizkeraz hizkera alda daiteke erabilera hau, eta solaskidearen arabera ere aldaerak daude.

Hamargarren atala morfosintaxiari dagokio. Atal honetan perpausen egiturak nola eratzen diren aztertzen da. Horrela, denbora eta modu perpausak, kausalak, baldintzakoak, perpaus osagarriak, kontzesiboak etab. dira ikergai.

Hamaikagarrenean Zugarramurdiko eta Urdazubiko lexiko garrantzitsuena biltzen da. Suposatzeak denez, hautaketa gaitza egin behar da lexiko guztia ezin baita halako liburu batean bildu. Bildutako lexiko kopuru hau lotu da bertako ohiturekin; horrela, bilduma honetan, forma mugagabea, mugatua eta kategoria agertzen dira, beharrezkoa ez denean ez da ordain batua ematen, baina gehienetan bere esanahia euskara batuan atxikitzen zaio. Hitzak hurrenkera fonologikoan ordenaturik agertzen dira, eta nahiz eta alfabetikoki ordenatutako hitz zerrenda bat izan, erabileraren maiztasunari buruzko aipuak ere ekartzen ditu: (gutxiagotan) edo (ohikoagoa) hitzen bidez.

Hamabigarren atala ondorioena da. Atal honetan, ikerketan aipatutako ezaugarri linguistikoen isoglosak erabiliz, hizkera kokatzen da. Beraz, ikus dezakegu era laburrean herri hauetako hizkerak lapurterekin bete-betean bat egiten duen edo ezaugarri nafarrak dituen, ezaugarri bateratzaileak edo bereitzaileak erabiliz. Alegia, Baztan-Zugarramurdi-Urdazubi-Sara eremuen artean dagoen lotura edo ezberdintasuna erakusten digu. Frogatu du herriak administrazioz nafarrak izan arren, lapurterekin lotzen dituzten ezaugarriak ugariak izan direla, mendetan zehar iparraldeko herriekin izandako harreman sozioekonomikoak era erlijiosoak handiak izan direlako, baita ondoko Baztan ibarrarekin ere, duarik gabe.


Ondorio orokor gisa esan dezakegu Zugarramurdiko eta Urdazubiko hizkerak Ipar Euskal Herriko hizkerekin duen lotura ez dela gaur egun hain estua, eta honek erakusten du desberdintasunak sortu direla Zugarramurdi-Urdazubiren eta gainontzeko nafar-lapurteraren artean.

Bibliografía bi ataletan banatua agertzen da: lehenik, liburuan zehar aipatutakoa eta bigarren ataletan bibliografía osagarria. Ikertzaileak hemendik kanpo, Europan, zer egiten den ere ezagutzen duela nabari da aipatutako bibliografiaren bidez.

Honainokoa laburbilduz, liburu honek aurretik aztertu gabe zegoen eremu baten deskribapen eta alderaketa dialektologikoa ekartzen digu, trantsizio edo mugako toki batekoa era zientifikokoan, gaurkotuan eta egokian egina, eta ekarpen interesgarriak plazaratzen ditu.

Dudarik gabe, premiazkoak dira gisa honetako lanak, bereziki Ipar Euskal Herrian, hain larria eta kezkarria izanik euskalki batzuen etorkizuna.

Orreaga Ibarra Murillo



RUBIO, Coro
La identidad vasca en el siglo XIX: discurso y agentes sociales
 Madrid : Biblioteca Nueva, 2003. - 476 p. : il. ; 24 cm.
 - ISBN: 84-9742-119-1

Con este libro Coro Rubio Pobes escribe otro capítulo, cargado de documentación y bibliografía, en la ya larga senda del estudio de la historia vasca y nos ofrece un trabajo de visita obligada para todo aquél que desee adentrarse en la ardua tarea de desentrañar el pasado.

A través de 476 páginas, la autora reconstruye el discurso que las elites intelectuales del mundo político, cultural y religioso del País Vasco decimonónico elaboraron con el propósito de definir y divulgar un código de identidad colectivo capaz de permitir a todos los vascos reconocerse como miembros de un país, pueblo o nacionalidad singular.

La fortaleza de una cultura foral y de una administración propia; el difícil encaje del territorio vasco en el proceso de construcción del Estado liberal; y el fracaso o debilidad del proyecto nacionalizador español –escribe Rubio Pobes– abonaron el terreno para construir la identidad vasca.

Esta construcción –prosigue– fue protagonizada en un primer momento por elites intelectuales procedentes del mundo político vascongado y de adscripción ideológica diversa que no crearon su discurso sobre el vacío, sino que bebieron de elaboracio-